



Setien garaile

Gipuzkoako Foru Aldundiko XII. Sagardo Lehiaketako sarietan. Altzuetak bigarren eta Urdairak hirugarren postua lortu zuten.

Larunbatean, 2013ko ekainaren 1ean, XII Sagardo Lehiaketaren sariak banatu zituen Gipuzkoako Foru Aldundiak Gastronomiako Euskal Anaiartean. Urnietako Setien sagardotegiak lortu zuen txapela, Usurbilgo Urdaira hirugarren eta finalisten artean Adunako Aburuza eta Hernaniko Iparragirre egon ziren. Bigarren saria Hernaniko Altzuetak eraman zuen eta Astigarragako Oialume Zar sagardotegia izan zen beste finalista.

Lehiaketan parte hartu duten 36 sagardotegien artean, Setieneko sagardoak irabazi du 81,5 punturekin. Bere atzetik, Altzuetak 80,5 puntu lortu zituen eta Urdairak 80.

Orain arteko ediziorik ugariena izan da, esan bezala, 36 sagardotegirekin. Zorionak hiruroi!

Zoriondu beharreko beste sagardotegi bat Astarbe da. Astarbe Sagardotegia Gipuzkoako Zaharrenetakoa da. Familia beraren esku egon da bost mendeetan zehar eta sagardogintzara eta sagastien zainketan lanean jarraitzen du denbora luze honetan.

Maiatzak 20ean, 450 urte hauek ospatu zituzten beren produktu berria aurkeztuz: Byhur sagardo aparduna.

Zorionak eta jarrai dezatela horrela lanean!

